

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Aintzane Ezenarro Egurbide** Aralar taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, Biktimen Harretarako zuzendari **Maixabel Lasaren AGERRALDI ESKARIA** egiten du, “Azkoitian Jabier Larrañagaren, Ramon Oñederraren eta Jose Luis Salegiren omenezko plakak kentzeagatik” azalpenak eman ditzan Giza Eskubideen batzordearen aurrean, **PRESAZKO PROZEDURAREKIN**.

### **ZIOA**

Ekainaren 19an Jabier Larrañaga *Peru*, Ramon Oñederra *Kattu* eta Jose Luis Salegi *Txipi* azkoitiarren omenez Azkoitiko parroki ondoko lorategian jarritako oroitarriak kendu ditu Ertzaintzak. Ramon Oñederra GALen biktima izan zenez, erabat ulertezina –eta zuzendu beharrekoa– dela deritzogu Terrorismoaren biktimei aitortpena eta erreparazioa egiteko 4/2008 legeak berak babesten duen biktima baten kontra aritzea. Hori dela eta, Biktimen Arretarako zuzendariaren agerraldia eskatzen du:

### **AGERRALDI ESKARIA**

Azal dezan, Giza Eskubideen Batzordearen aurrean, zer egiteko asmoa duen legeak berak babesten duen biktima bat errespetatua izan dadin eta, bide batez, gertatutakoa zuzentze aldera.

### **PRESAZKO PROZEDURAREN ARRAZOIA**

Sesio-aldia amaitu aurretik gaia argitzea ezinbesteko deritzogu, batez ere, biktima horri eragindako kaltea lehengoratzeko. Hori dela eta, presazko prozeduraz jardun behar dela irizten diogulako, gaia sesio-aldia amaitu aurretik landu ahal izateko.

**Gasteizen, 2010eko ekainaren 22an**

**Aintzane Ezenarro Egurbide**  
Aralar taldeko bozeramailea

